

| | | |
|---|--|----------------------|
| <i>Berdintasun Zerbitzua</i> | | <i>Getxoko Udala</i> |
| Gaia: BERDINTASUN KONTSEILUAREN BILERA | | |

Bileraren datuak:

Data: 2021-10-07

Tokia: Gobelaurre

Ordua: 17:00etatik 18:30era

Bertaratutakoak:

Amaia Agirre: alkatea

Berritzegune: Marta Arana

Enpresa-sarea: Izaskun Rama

Bidea Eginez: Estibaliz San Sebastian

Bilgune feminista: Uxune Iriondo

Aisibizia: David Santamaria

Gizatiar: Marta Barrie

LAB: Iratxe Zarraga

EAJ-PNV: Keltse Eiguren

PSE: Mihaela Jilavu

EH Bildu: Arantza Gutierrez

ELKARREKIN PODEMOS-EP: Carolina Uribe de la Espriella

PP: Javier Elorza

Presidentea: Carmen Diaz

Idazkaria: Bego García

Egon ez direnak:

Eskuz esku Mujeres Con Voz

Moviendote Getxo

IEA

Gai-zerrenda

- Ahalduntze-eskola, 2021-2022.
- Azaroaren 25eko kanpaina
- Covid diagnostikoa. Getxo Ekinez.
- Emakumeen elkarteekin osatutako lantaldea.
- Beste batzuk.
- Galde-eskeak.

Amaia Agirre alkateak hasi du bilera: ongietorria eman die parte-hartzaileei eta eskerrak eman ditu parte hartzeagatik nahiz berdintasun-kontseilu honetan egiten dugun lanagatik. Berdintasunaren alde lan egiten jarraitzera animatu du, eta udal honek berdintasunari buruzko politikak bultzatzearekin duen konpromisoa berretsi du.

Aurreko akta onestea

Aurreko bilerako akta, 2020ko ekainaren 10ekoa, onetsi da.

Ahalduntze-eskola, 2021-2022.

Eskolako ikastaro eta tailerretan izena emateko epea amaitu da, eta hauxe da laburpena:

- o Guztira 614 izen-emate egon dira eskainitako 293 plazetarako.
- o Aurreko ikasturtearekin alderatuta, 98 plaza gehiago egon dira (Covid gaitzagatiko murrizketarik ez egoteagatik), bai eta 27 izen-emate gehiago ere.
- o 275 ikaslek eman dute izena; hala, 32k ez dute plazarik lortu ikastaro batean ere ez.
- o Aurten, 114 ikasle berri egon dira.

Bilgune Feminista eta EH Bildu taldeetako ordezkariak adierazi dute, Getxoko hizkuntza-eskakizuna kontuan hartuta, ikastaro gehiago eskaini beharko liratekeela euskaraz. Euskaraz ikastaroak eskaintzeko egiten den esfortzua eskertzen da, baina horien kopurua handiagoa izan beharko litzateke.

Elkarrekin Podemos taldeko ordezkariak proposatu du emakume gazteen parte-hartzea sustatzea eskoletan, parte-hartzea baxua baita.

Azaroaren 25eko kanpaina

Bidea Eginez elkarteko ordezkariak adierazi du Tartanga institutuan izandako esperientzia gizonekin matxismoaren eta indarkeriaren aurka aritzean datzala.

Bilgune feministak ikuspuntu interseksionala duen kanpaina egitea proposatu du.

Gizatiar elkarteak azaroaren 25eko kanpainaren inguruko informazioa eman du: Indarkeria matxistako II. jardunaldiak. *Volare* filmaren emanaldia eskainiko da, eta ondoren horri buruzko solasaldia egingo da; hurrengo egunean, Pilar Perez Fuentesek hitzaldi bat emango du.

Aisibizia elkarteak, azaroaren 20ko egunaren harira, ekitaldi bat antolatu du RKEEn, Psikowomanekin.

Covid diagnostikoa. Getxo Ekinez

Berdintasuneko teknikariak prozesuaren berri eman du.

- Getxo Ekinez proiektuaren baitan jaso den diagnostikoa da, pandemiaren ondorioak arintze aldera.
- Helburua da biztanleriarengan oro har pandemiak izandako eragina neurtzea, belaunaldi arteko ikuspuntutik begiratuta, biztanleriaren esparru eta talde guztietan izandako ondorioak ezagutze aldera, besteak beste aintzat hartuta gazteen ikuspuntu emozionala, familien zaintza eta adinekoen bakardade-egoera. Halaber, zaintzen esparruari helduko zaio denbora eta osasunaren dimentsioa oinarri hartuta, eta honako gai hauek ere izango dira aztergai: gizarte- eta lan-arloko egoera nahiz egoera ekonomikoa; indarkeria matxistaren errealitatea; guraso bakarreko familiak; eta erakundeek osasun-krisian zehar sortutako beharrizanei emandako erantzunaren eragina.

- Diagnostikorako metodologia mistoa erabiliko da. Batetik, metodologia kuantitatiboa, adinaren arabera (gazteak, helduak eta adinekoak) bereizitako hiru galde-sorten bidez egingo dena. Bestetik, metodologia kualitatiboa, zeinetan zaintzei buruzko literaturan jasotako ondorioak berrikusiko baitira; horrez gain, sakoneko hiru elkarrizketa egingo zaizkie erakunde desberdinetako profesional adituei eta kolektibo zehatz batzuekin lau eztabaidatalde osatuko dira, betiere ikuspuntu intersektionaletik.

Emakumeen elkarteekin osatutako lantaldea

Adierazi da zailtasun handiak daudela taldeak aurrera egin dezan, datak eta ordutegiak egokitzeari dagokionez.

Beste batzuk.

Berdintasuneko zinegotzi den Carmen Diaz andreak Getxoko Emakumeen Etxea sortzeko hasiko den prozesuaren berri eman du. 2017. urtean hasi zen parte-hartze izaerako prozesutik abiatuta, talde eragile bat osatuko da, Prometea erakundeko bi dinamizatzailearen laguntzarekin, prozesua bultzatu dezaten. Zehazki, etxeko kudeaketa-eredua, beharrezkoak diren zerbitzuak, izena, etab. zehazten saiatuko gara.

Horretarako, 400.000 euroko aurrekontua dugu Benturillenako obrak egiteko, bertan egongo baita etxea. Horrez gain, arloa handitu nahi da, giza baliabideei dagokienez.

Legegintzaldi honetan inauguratu nahi da etxea.

Galde-eskeak
